



1. JARDUERA: OSTADARRA

Jarduera honen bidez lan ditzakegun edukiak:

- 2. arloa. **Inguruaren ezagutza:** 1. eta 2. blokeak.
- 3. arloa. **Hizkuntzak. Komunikazioa eta adierazpena:** 1. eta 2. blokeak.

Beharko dugun materiala:

Patxiren mezua dakarren audioa, Patxiren mezuaren testua, pisten txartelak (eranskinean).

Hezitzailearentzako oharrak:

Ipuineko une jakin batean, neska-mutilek ostadarra zabaltzen lagundu beharko diote Sara protagonistari. Koloreen ordena buruz ikasi ahal izateko, aurrez Patxiren audioko mezua landu beharko dute.

Eginkizun horretan, pisten txartelak erabili ahal izango dituzu, koloreen kontua oraindik oso garbi ez daukaten neska-mutilei laguntzeko.

Garapena:

- Esan neska-mutilei ipuina ostadarrari buruzkoa dela. Egin ostadarrari buruzko galderak: ba al dakizue ostadarra zer den? Noiz ateratzen da? Ikusi al duzue inoiz? Konta ditzatela haien esperientziak.
- Aurkeztu neska-mutilei Patxi pertsonaia eta entzun haren mezua dakarren audioa, ostadarreko koloreen ordena zein den jakiteko eta Sarari laguntzeko.
- Behar izanez gero, pisten txartelak erabili, koloreak identifikatzen laguntzeko.



Mezuaren testua:

Ostadarra zeruan zabaldu nahi duenak

gogora dezala ondo koloreen ordena.

Lehenik eta behin, jarri gorria.

Horrelakoa da suhiltzaileen kamioia!

Laranja dator segidan;

gogoan izan fruta eta C bitamina!

Horia da hurrengoa,

eguzkiaren kolore berekoa.

Orlegia dator ondoren,

belardi eta hostoak bezain dotore.

Urdina da hurrengoa,

zerua eta itsasoa bezalakoa.

Anila eta morea dira azkenak;

lan guztia bukatu dugu horrela.

Ikusi zeruan ostadarra!

Hortxe daude gure koloreak!




Gorria, laranja, horia,

orlegia, urdina, anila, morea.




HAUR

Pisten txartelak





HAUR





2. JARDUERA: GOAZEN SARARI LAGUNTZERA

Jarduera honen bidez lan ditzakegun edukia:

- 2. arloa. **Inguruaren ezagutza:** 1. eta 2. blokeak.
- 3. arloa. **Hizkuntzak. Komunikazioa eta adierazpena:** 1., 2. eta 3. blokeak.

Behariko dugun materiala:

Sararen ostadarra ipuina (oharrekin), ilustrazio inprimatuak (ikasgelan zintzilikatzeko), ostadarraren posterra (A2 neurrian inprimatuta), margoak, Patxiren audio-mezua.

Hezitzailearentzako oharra:

Ipuina irakurri baino lehen, material batzuk prestatu behar dituzu, ipuina kontatzean neska-mutilen parte-hartzea bultzatzeko: ipuinaren testuan (eranskinean) ikusiko duzu zehazki zein unetan bultzatu behar den haien parte-hartzea.

-Inprimatu eranskineko ilustrazioak tamaina egokian, eta jarri ikasgelan zintzilik, dauden ordena berean.

-Ipuinaren une jakin batean, neska-mutilen kolaborazioa eskatu behar duzu, ekaitz baten soinuak simula ditzaten. Esteka honetan, bideo lagungarri bat topatuko duzu:

<https://www.youtube.com/watch?v=O6VwXI8IHHU>

-Ipuina kontatu ondoren, margotu denen artean ostadarraren A2 neurriko poster inprimatua.

Garapena:

- Kontatu ipuina neska-mutilei, haiek ere parte hartzera bultzatuz.
- Bukatutakoan, hausnarketa egiten lagundu, horrelako galderak eginez:
 - o Azkenean, lagundu al diogu Sarari?
 - o Nola sentitzen zarete laguntza eman ondoren?
 - o Lagundu al diozue inoiz inori? Nori?
 - o Ez badiegu besteei entzuten, jakingo al dugu gure laguntza behar dutela?
 - o Eskatu al duzue inoiz laguntzarik, Sarak bezala? Zertarako? Nori?



FRANSKINA



Konta ditzatela haien esperientziak, eta ikusarazi zeinen garrantzitsua den bai beharra dugunean laguntza eskatzea, eta bai beharra dutenei laguntzea.

- Bukatzeko, margotu denen artean ostadarraren poster inprimatua eta jarri ikasgelan zintzilik, ondo ikusteko moduko leku batean, Sarari nola lagundu zioten gogoratzeko.







HAUR







HAUR







HAUR





HAUR





SARAREN OSTADARRA

IPUINA

Euria egiten duen egunetan, Patxi aritzen da zeruan ostadarra jartzen. Baina dagoeneko oso zaharra da eta atsedean hartu behar du.

Ostadarra jartzea oso lan garrantzitsua denez, Sarari erakutsi dio nola jarri behar den.

Patxik badaki Sarak oso ondo egingo duela; konfiantza osoa du Sararengan:

–“Lan hau kontu handiz egin behar da, Sara. Ostadarra gauza magikoa da. Euria egiten duen egunetan, umeak pozez zorutzen egoten dira zeruari begira, ostadarra ateratzeko zain”.

Gaur, hodei beltz batzuek estali egin dute zerua. Laster euria egingo du. Sara urduri dago; ezin du huts egin.

Zirimiria hasi da aurrena **(esku barruak igurtzi eta entzungo duzu)**

Gero, gogorrago botatzen hasi da **(orain, txaloka hasi)**

Azkenetako, sekulako ekaitza lehertu da **(izterretan txalo egin eta oinekin lurra jo)**

Pixkanaka-pixkanaka, baretzen joan da ekaitza. **(Pixkanaka-pixkanaka, utzi izterretan txalo egiteari eta oinekin lurra jotzeari; gero, txalo leunak egin; azkenik, eskuak igurtzi)**

Orduan, eguzkia atera da, irribarretsu eta distiratsu. Ostadarraren txanda iritsi da!

Sara Patxik irakatsitakoa gogoratu nahian dabil:

“Ondo gogoratu koloreen ordena!”, esan zion Patxik.

Ai ene! Nahiz eta askotan errepasatu duen... Sarak ezin du koloreen ordena gogoratu!

Sarak zuen laguntza behar du: entzun adi Patxiren mezua, eta lagundu Sarari ostadarreko koloreen ordena gogoratzen. **(Patxiren audiora lotura)**

Prest al zaudete? Lagundu Sarari ostadarra jartzen!

Zein da aurreneko kolorea? **(2. jardueran prestatutako materiala erabili)**



Zorionak! Zein dira hurrengo biak?

Oso ongi! Eta zein dator orain?

Bikain! Eta orlegia eta gero?

Bi besterik ez dira falta! Zein dator urdinaren ondoren?

Zorionak! Oso eskuzabalak izan zarete, Sarari laguntzeko ahalegina egin baituzue.

Umeak aho zabalik geratu dira hain ostadar polita ikustean, eta Sara poz-
pozik jarri da bere lehenengo ostadarra jarri duelako.

IPUINA

